

Fundazioak katedralaren estalkiak zaharberritzeko lanak amaitu ditu eta balkoi-begiratoki bat aurkezten du erdiko nabearen estalpean

Obra horiei esker, ura husteko sistema osoa berrantolatu da, zurezko egiturak eta katedrala babesteko isolamendu termikoa hobetuz. Dorrera egiten den bisitan, balkoi-begiratoki bat izango da, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat ere irisgarria dena, eta gangen goiko aldea eta erdiko nabearen estalpeko espazioa ikusi ahal izango dira.

Santa Maria Katedrala Fundazioak apirilaren amaieran aurkeztu ditu nabe nagusiko estalkia zaharberritzeko lanak eta balkoi begiratokia, nabe horretako teilatu arteko espazioa ikusteko aukera emango duena. Aurkezpenaren buru izan da Arabako Ahalduen Nagusia, Ramiro González, eta bertan izan dira Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuordea den Andoni Iturbe eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendaria den Urkiri Salaberria. Halaber, bertara hurbildu dira Sonia Diaz de Corcuera Gasteizko Udaleko Kultura zinegotzia eta Carlos Garcia Llata Gasteizko Elizbarrutiko bikarioa. Horiekin batera, Jon Lasa Santa Maria Katedrala Fundazioko gerentea eta Leandro Cámara Fundazioko arkitektoa izan dira. Azken hori urte hauetan egin diren obren xehetasunak emateaz arduratu da.

ESTALKIEN ZAHARBERRITZEA

Katedraleko estalkiak zaharberritzeko prozesua 2015ean hasi zen, alboko nabeetako estalkiak zaharberritzearekin. Handik urtebetera, arkupearen estalkiak hasi zituzten lanak, eta 2018an, berriz, buruko estalkietako lanen txanda izan zen. Pandemiaren ondoren, goiko estalkietan hasi ziren lanean, eta bi fasetan banatu zituzten: lehen, transeptua birgaitu zuena, eta bigarrena, erkiko nabeko estalkietara bideratua, 2024an amaitu dena. Modu horretan, Santa Maria eraikinaren goiko espazio osoa berreskuratzeko prozesua amaitu da.

Proiektu bakoitzak ezaugarri propioak izan dituen arren, kasu guztietan alderdi komun batzuk izan dira. Goiko aldeak harlangaitzez eta hargintzaz finkatu eta indartu dira. Lehendik zegoen zurezko egitura



Nabeko estalkiko obrak



Egunero egoera, goiko estalkiak zaharberritu ondoren



Taula isolamenduarekin, arrastelak, teila berriak behealdean (kanal-teila) eta berrerrabildi direnak goiko aldean (babes-teila)

nagusia kontserbatu egin da, betiere kontserbatzeko egoerak horretarako aukera eman badu. Horren gainean egurrezko gapirioak jarri dira. Horietan guztietan hiru geruzako taula bat sartu da, tartean isolamendu ekologikoarekin. Era horretan, gangen babes higrotermikoa (temperatura eta hezetasunarena) hobetu da, haien narriadura atzeratzearekin batera. Teilatuetan, teila berriak jarri dira beheko aldean (kanal-teila) eta egoera onean zeuden teila zaharrak goiko aldean (babes-teila).

Ekintza horiekin guztiekin ura husteko sistema osoa berrantolatzea lortu da, zurezko egiturak eta katedrala babesteko isolamendu termikoa hobetuz.

BALKOI-BEGIRATOKI BERRIA

Aurkeztu dituzte erdiko nabearen estalkia zaharberritzeko amaitutako lanak. Bertan, balkoi begiratoki bat jarri dute, mugikortasun murriztuko pertsonentzat irisgarria, dauden espazio-aukeretara egokituta. Modu horretan, gangen goiko aldea eta erdiko nabearen teilatu arteko espazioa ikus ahal izango dira.

Espazio berri hori Dorrera egingo diren bisitetara gehituko da, eta katedrala eraikitzeke sistemaren ikuspegi paregabeaz gozatu ahal izango da. Horrela, Santa Mariako bisiten edukia aberastuko da.

Ahotsak Elizpean Voces en el Pórtico

Santa María Katedrala
Catedral de Santa María



2025

MAIATZA - MAYO
ostirala 9 viernes

Amalur Abesbatza
Coro Urkanta
Coral Enol
Coro Badaya

MAIATZA - MAYO
ostirala 16 viernes

Coro Ausartak
Arantzabela Abesbatza
Tantak Abestaldea
Coral Ahots Argiak

MAIATZA - MAYO
ostirala 23 viernes

Ametsak Abesbatza
Lumina Taldea
Coro Vicente García
Coral Dultzinea

MAIATZA - MAYO
ostirala 30 viernes

Haritz Hostoa Abesbatza
Kataliturri Abesbatza
Coro Zurbano
Coro Cantacantorum

EKAINA - JUNIO
ostirala 13 viernes

Maiora Canemus
Gasteizko Lagunak
Coral Gurasoak
Coro Bi-hotsak

Ikuskizunak: Argjaren Elizpea.
Santa María katedrala 19:45etan.

Gonbidapenak: BISITARIEN ZENTROA, Santa María Kantoria 3
Kontzertuaren astean hartuko dira asteazkenetik aurrera

Actuaciones: Pórtico de la Luz.
Catedral de Santa María 19:45 h.

Invitaciones: CENTRO DE VISITANTES, Cantón de Santa María 3
Se recogerán a partir del miércoles en la semana del concierto



LABORAL
kutxa



AHOTSAK ELIZPEAN

KATEDRALERA ITZULIKO DA BOST KONTZERTU KORALEKIN ETA HOGEI TALDEREKIN

Bere hitzorduari leial, musika korolari eskainitako Ahotsak Elizpean zikloaren edizio berri bat abian da. Santa María Katedralean bost musika emanaldi izango dira maiatzean eta ekainean eta Lurraldeko hogei bat taldek hartuko dute parte.

11. edizio honetan, egitaraua maiatzaren 9an hasiko da, Amalur Abesbatza, Ukanta Abesbatza, Enol Abesbatza eta Badaya Abesbatzaren emanaldiarekin. Hilaren 16an, Coro Ausartak, Arantzabela Abesbatza, Tantak Abestaldea eta Coral Ahots Argiak izango dira protagonistak. Elizpeko ahotsak jaialdiaren erdialdean Ametsak Abesbatzak, Lumina Taldeak, Coro Vicente García eta Coral Dultzinea emanaldiak eskainiko dituzte, hilaren 23an. Haritz Hostoa Abesbatza, Kataliturri Abesbatza, Coro Zurbano eta Coro Cantacantorum taldeek maiatzaren 30ean emango diote amaiera zikloari.

Ekainaren 13an, ostirala, Maiora Canemus, Gasteizko Lagunak, Coral Gurasoak eta Coro Bi-hotsak taldeen musika izango da berriz ere.

Maiatzaren eta ekainaren bitartean egingo diren musika-topaketa hauek – Santa María Katedrala Fundazioak Arabako Abesbatzen Federazioarekin batera eta Laboral Kutxaren babesarekin bultzatutakoak – beti izan dute publikoaren laguntza. Urtero jende askok hartzen du parte; Lurraldeko abesbatza helduen emanaldiez gozatu ahal izan dute, garai, erregistro eta herrialde ezberdinetako abestiak eta musika koralararen adierazpen guztiak aurkezten baitira.



Sarrera doakoa da, baina aldeaz aurretik gonbidapenak jaso beharko dira (bi pertsona bakoitzeko) Santa María Kantoiko 3. Bisitarien Zentroan. Kontzertuaren asteazkenetik aurrera Fundatzaileen Zirkuluko kideen eskura jarriko dira eta publiko orokorrek asteazkenetik aurrera jaso ahal izango ditu kontzertuaren asteazkenetik aurrera. Maiatzaren 9, 16, 25 eta 30eko eta ekainaren 13ko musika-hitzorduak **19:45etan hasiko dira katedralera elizpean.**

SANTA MARIAK BILBOKO LA INMACULADA ABESBATZAREN EMANALDIA HARTUKO DU

Bilboko La Inmaculada abesbatzaren ahotsak entzungo dira katedralean maiatzaren 10ean, larunbata. Ia 50 urteko historia duen Eduardo Lopez de Herediak zuzendutako talde honek 32 ahots misto ditu gaur egun eta mota guztietako errepertorioak jorratzen ditu zarzuela, opera eta koru sinfonikotik abiatuz.

Ordua: 19.30etan. Sarrera librea lekua bete arte.



INMACULADAKO ABESLARIAK 2025